

UNSCOMek EEBBei informazioa pasatu dien susmoak agertu ditu Kofi Annen

Begiraleek ezkutuan entzuna xede militarra lortzeko erabili du Pentagonoak

Erredakzioa / Donostia

UNSCOMek isilgordeka entzun eta bildutako informazioa EEBBei helarazi dien frogak ornen ditu NBEko jeneralari nagusi Kofi Annen. The Washington Post-ek atzo argitaratu zuenez, beren lana egin artean Irakeko gobernuaren kornunikabideak espiatu dituzte begiraleek.

THE WASHINGTON POST egunkariak Annanen, kontseilarien-esanak aipatu ditu NBEko buruaren susmoak oinarritzeko. Annanek, hala ere, ukatu egin du informazioa, dena «zurrunburuak» direla agertuz.

Anonimatoan gordetako iturrien arabera, «NBEko idazkari nagusia jabetu egin da UNSCOMek bere zeregina haratago joan eta datu biltzen lagundu diela EEBBei».

NBEk Golkoko gerraren ostean Irakeko erregimenaren desarme prozesua aztertzeko sortu zuen batzorde bereziak isilgordeka entzun izan, du Bagdadeko zenbait leku estrategikotan. Hau UNSCOMen zeregina da arma kimiko edo biologikoak egitea eragozteko, NBEren iturrien arabera, bainajarduera hori Saddam Husseinen segurtasun sisteman sartzeko ere erabili du Washingtonek, atzo zabaldu zenez.

Egunkari estatu batuarraren arabera, UNSCOMen inguruan izaniko ezustea NBEk Irakeko krisiaren geroan izan behar duen rolari buruzko eztabaida püripurian dagoela heldu da, eta, iez dio onik egingo mundu erakunde honen prestijio

Washingtonek ere informazioa ukatu du


RICHARD BUTLER UNSCOMeko lehendakariak zein Scott Ritter begiraleen buruak gezurtatu egin. dute The Washington Posten informazioa. «Ez dugu inorentzako espioitza lanik egin», azaldu zuen atzo Butlerrek. UNSCOMeko buruak «idatzia ikusten den guzua ez sinesteko» eskatu zien egunkari horren irakurleek Ritterek ere irmo erantzun zien akusazioei honako hitzekin: «Ez dut inoliespioitarik egin, Saddam Husseinek gordetzen dituen armak aurkitzeko besterako ez zenik».

Peter Burleigh EEBBe-tako enbaxadoreak ere halakorik gertatu ez dela eman zuen aditzera eia bere gobernuak UNSCOM eta Butlerren lana onesten duela nabarmendu zuen.

Sergei Lavrov Errusiako enbaxadoreak NBE, al diz, j arrera sinesgaitza agertu zuen UNSCOMeko arduradunen azalpenei iriztean.

Lavrovek gogoratu zenez, Moskuk «fede txarrekotzat» jo zuen Butlerrek irakiarren desarmeari buruz aurkeztutako txostena. Dokumentu honek ahalbideratu egin zituen geroago Washingtonek eta Londresek egindako aire erasoak.

Lavrovek esan zuenez, «UNSCOMek egindako txostena, arlo batzuetan, faltsua zen eta okerrez jositako zegoen».



Kofi Annan Martin Luther Kingi buruzko hitzaldi bat ematen.

gero eta makalagoari. «Nazio Batuen Erakundeak ezin jardun dezake bere baitako kidea den estatu bat hankaz gora botatzeko jokoan edo ahalgintetan. Sakonean, hauxe da UNSCOMen operamaren akatsa», argitu du Annanen aholkulariak.

Iturri berak esan duenez, NBEko idazkari nagusia presionatzen ari da Richard Butler UNSCOMeko buruak dunititzeko eta beronen ordez Iraken onesperia izango lukeen beste lagun bat jartzeko. Kofi Annan, gainera, NBE eta beraren irudiez keatuta dago, eta argi utzi nahi du, geroan izan litezkeen akusazioei begira, berak ez duela inolaz ere UNSCOMen ustezko joko-

moldea onartu, ezta horren aurrean ezikusiarrena egin ere.

«Idazkari nagusiak ez du UNSCOMen gaineko zuzeneko kontrolik, erakundea Segurtasun Kontseiluaren menpekoa baita», adierazi du Annanen beste laguntzaile batek, «beraz, berak ez dauka jarduera hauen berrijakiteko biderik. Hori guztia egia bada, inondik ere kalte handia egingo dio NBEren sinesgarritasunari».

Kofi Annanek, bestalde, ukatu egin du informazio hau. NBEko idazkari nagusiak atzo bertan jakinarazi zuenez, «ez dago hori baieztatzen frogarik; dena zurrunburuak baino ez dira».

Txileko Gobernuak eskaera aurkeztu du Pinocheten inmunitatea defendatzeko

Baliabidea onartuz gero, Lorden Ganberan jeneralaren aldeko argudioak azalduko dituzte

Agentziak / Londres

TXILEKO Gobernuaren abokatuek eskaera aurkeztu zuten atzo Lorden Ganberan Pinocheten inmunitatearen alde egiteko. Baliabide hau onartuz gero, Txileko Gobernuaren abokatuek Augusto Pinochet jeneralaren aldeko argudioak aurkeztuko dituzte auziko saio berrian. Hala azaldu zuten atzo Txileko Gobernuak Londresen kontratatutako abokatuek, Herbert Smith bulegoko ordezkariak, alegia.

Urtarrilaren 18an ekingo dio Lorden Ganberako apelazio komiteak auziaren saio berriari, eta bigarren aldiz jorratuko dute Augusto Pinochet jeneralaren inmunitatea bertan.

Bestalde, Pinochet auziko hirugarren parteek gaur arte dute epea beren eskaerak aurkezteko, baldin eta Lorden Ganberan beren argudioak azaidú nahi baldin badituzte. Tartean Frantzia, Suiza, Belgika eta Suedia herrialdeak ere dira. Horiek ere Pinochet diktadore ohia- ren estradizioa eskatu zuten.

Azaroaren 17an lordek inmunitatea kendu zioten Pinocheti. Erabakia, baina, bertan behera utzi behar izan zen, diktadore ohia- ren abokatuek «neutralitate faltagatik» aurkeztu errekurtsioa onartua izan baitzen.

'Inpeachment'-a nola bideratu jakin gabe jarraitzen dute errepublikanoek

Prest dira Clintonen abokatuak gaur hasiko den auziari aurre egiteko

Agentziak / Washington

GAUR hasiko dute Bill Clinton Estatu Batuetako presidentea kargutik botatzeko auzia. Horren aurrean Bill Clintonen abokatuek azaldu dute prest direla auziari aurre egiteko, eta edozein tresna erabiliko dutela gaineratu. Izan ere,

errepublikanoek inpeachment-a nola bideratu duten ez dute jakinarazi: auziak zer luzera izango duen eta zenbat lekuko deituko dituzten.

Trent Lott senadore errepublikanoa saiatu da auzia erarik sinplenean eta laburrenean egiten, baina ez du espero besteko laguntzarik jaso. Izan

ere, errepublikanoen artean iritziak anitz dira. Lott, senadorea lagunduko ez dutenek adierazi dute halako auzi serio bat ezin daitekeela Lottek proesatu bezain bizkor argitu.

Izanak izan, Clinton lehendakariak esan du urtarila ren 19an emango duela Nazioaren Egoerari buruzko hitzaldia.



EUSKAL KULTUR
ASTEAREN
GAIEN BARRIAN

Kultur Sirkuluz
Izango da